

Bihararamunean

Uxue Apaolaza

Larritasun sentsazioa sortzen du kaleak tarte honetan goizaldean, taberna guztiak itxita izaten dituzten ate erabatekoek, bideokluba ere hala aspaldidanik eta txokolatina makina pareta tabernak irekirik daudenean baizik erabiltzen ez direnak. Estankoa baino ez ateak zabalik, barruan ezin eta dendaria kalera erretzera aterata, kalea hustu duen etxeratze-agindu batean zentinelak balitz bezala alde batera eta bestera begira.

Taberna eta taberna artean beren etxebizitzetara igo daitezkeen karitatez utzitako espazioa dirudi portalek inguruotan betetzen dutena, eta haietako batetik irten da Ainarak Sagarzazu. Juanjo eta Ixabelen alaba, zuzenbidea ikasten duenaren itxura egiten du plan hobeto zain; zurbil dago, baina egunero bezala, eta gaur eguzkia bere begiak zigortzeko baizik ez dela atera iruditzen zaio eskua zerurantz luzatzeko moduagatik; berorik ere ez du ematen, baina inoiz ez ditu eguzkitako betaurrekoak ahazten parrandara doanetan, negua izanik ere; inoiz ez da jakiten non eta zein aurpegirekin harrapatuko zaituen egunsentiak. Maribelek adibidez ez luke ezagutuko jantzi izan balitu parera iritsi zaion baino lehen, ez du egin ordea agurtu duen arte. "Iepa!" bat gehiago baizik ez litzateke hala ere jarri aurretik betaurrekoen gainetik begi ertzaz ezkerretara begiratu ez balu atzean utzitako arrastoa neurtzeko bezala Maribelen begirada ere balkoira gidatuz; zerbait izan da kortinaren ertzari helduta, galtzontzilotan, Ainarak atzera begiratuko ote duen zain baita bart gaueko trofeoa.

"Beherantz zoaz?" Betaurrekoak atondu eta abiatu da kalean behera amaren lagunaren aurrean lotsatzen den nerabearen plantak eginez, Maribelekin, zeina kasu berri baten aurrean Sherlock-i jarriko litzaiokeen aurpegieraz doan, harategiraino. Ainararen aurpegierak ajeaz gain, ongi burututako mendekuaren betetasunezko irribarrea darama.

Maribelen begiradak erre balu bezala kortinaren atzetik paretarenera ezkutatu dena Iñigo da Ainararentzat, Lutxi eta Joxeren semea Maribelentzat, Itziarren mutila bientzat.

Kalean bakarka geratu denean poltsa arakatu du Ainarak mugikorra eta tabako paketea ateratzeko; hamaikak dira. Ama irten da erosketak egitera, aita ere ez da etxean, bilera edo halako zerbait zuen soziedadean; nahi gabe hartu du loak ohe arrotzean baina gutxienez behar adina berandutu zaio etxean inorekin ez topatzeko. Metxeroa erori zaio.

Harategiaren atean ikusi gabe mugimendua sumatu du makurtzean, buru pare baten ihesa, Maribel eta Maribirenak adibidez eta hasi da marmarra. "Hazita dago bai, ez nuke asmatuko Ixabelen alaba zenik", "Gure artean gera dadila, baina esango nuke..." "Esan, esan..." "Su peso en oro balio du nobiak..." Giltza etxeko sarrailan sartu eta hantxe utzi du Ainarak poltsikoetako txanpon eta billete kiribilduak ateratzeko, zenbatu ditu. Giltza atzera atera eta jarraitu du kalean behera. "Nori esan behar diot nik! Sospetxak baino ez dira gainera..." Arrandegian agian izango du nori kontatua; Ainarak oraintxe pasa da bere elikadura fosforoan aberats egin duen komertzioaren paretik. Ama edozein dendatan egon daiteke, behin harategia eta arrandegia pasatuta ordea, fruta-dendan da dudarik gabe; lehenago edo beranduago Maribelek hasitako ikerketarekin gurutzatuko da, "... mutila? Sinsangre bat, aita bezala". Ainarak ez du handik pasa behar Eroskira iristeko.

Eskua kamiseta azpian sartu eta saiatu da besazpietatik bereizten; azkura du izerdia dela eta, bezperako arroparekin lo egin du eta kalean hotz den arren, gau osoko beroa ematen dio kamisetak. Tabakoak usaimena anulatu ez balio deserosoago legoke. "Hara, de inkognito zoaz?" Horrelakoetan ulertzen du Ainarak jendea zergatik joaten den bizitzera hiri handietara, Nosotras-ek kantatzen duen eran herria handiegi geratzen zaie. "Kafe bat?" Ixone; Iñigo eta Iratxeren pisukidea eta koadrilako moralaren zaindaria. Militantziara mutilaren itzalpean integratua; horiek dira elkarrekin pasatzen dituzten orduak, militantzia politikoa eta militantzia familiarrenak, momentuz dibertsioa bakoitzak bere aldetik bizi dute, Ixonek ezta orduan ere.

"Ez, ez, Eroskira noa denetarik erosi eta gaur gelatik irten behar ez izateko, gurasoak etxeratu aurretik egin behar dut". "Ajea?" Pipak jateari utzi gabe egiten ditu galderak Ixonek, kuriositateak baino protokoloren batek gidaturik. Gaur gutxienez bere sekretuak plazererako eremu intimo bat eskaintzen dio Ainarari; Ixoneri Iñigorekin oheratu dela oihukatze gogoak eztarria kilimatzen dio; "Itziarren 'eta punto' batzuen kontra argudiatuz aritu naiz bart gauez, zure pisuan hain zuzen" esan nahi dio. "Ez zara oraindik oheratu?", jarraitzen du Ixonek. "Norekin?" "Hiruretan etxeratu zirela esan zidaten". "Norekin?" "Ni Josuren [bere mutila] etxean, pelikula bat ikusten". "Itziarrekin gelditu naiz gosaltzeko, bazatuz?". Ixone Ainarari belarri hertza urratzen

dioten marmarrak sugartsu mantentzearen arduradun gorenetakoa da, bere mutila dibertitzen ari den bitartean egiten du, bera hartarako gai ez denez. Dibertitzen ez den jendea (edo bakardadeari erabilerarik topatu ez diona) oso langilea izaten da (langilea lanean, langilea etxean, langilea pankarta/kartelgintzan, bonoak saltzen, komunikatugintzan eta txoznatan, langilea koadrilan, "antolatzaile" eternalak dira, edo Ixoneren kasuan, "antolatzaile"-en aholkulari), horixe bihurtzen da gainera besteengan ikus dezaketen bertute ia bakarra "langilea behintzat bada"; Ainarak alperra da eta Ixoneren aurrean dena baino are agertzen da hala; "porro bat erre eta telebista ikusteko gogoia bakarrik dut". Ixoneri pena eman dio Ainararen aktibitate gabeziak. Gero eta jende gehiago ikusten da kalean, vermouthearen orduaren iragarle, derrepente desagertuko dira gutxira, Ainararen gurasoak bezala.

Eta supermerkatuko atea atzean ixtearekin, isiltasuna. Ez ditu eguzkitako betaurrekoak kendu. Arrandegian topatuko da ama Maribelekin, edo bere miatzailearen batekin. Orain ohartzen da eguzkitako betaurrekoak hain berandu jartzea norainoko akatsa izan den, eta are balkoira begiratu izana. Banitatea zer den. Eguna ordenagailuan pelikula ikusten pasatzeko gogoia du, amaitu dira interakzioak; horregatik batzuei herriak handiegi geratzen zaizkie, edozein unetan edonor agurtzeko borondatea izan behar da, aurreko elkarrizketa zure buruari barkatu aurretik ekin behar diozu hurrengoari. Gazpatxoei begira, egokia topatu nahian, "Andalúz", marmarrak hasi zaizkio burmuinean, agian Iñigo ere joan da Ixone eta Itziarrekin gosaltzera, espero du Iñigok jakingo duela tipoa mantentzen, espero du ez zaiola Itziarrekin nobio damutuaren maitemin antzezpenetan hasterik bururatuko, harrapatu egingo dute, ezingo du Ixoneren galdeketa gaintitu, galdera eta galdera artean bi pipa, hiru asko jota. Tentsioa mantentzeko. Ainarak ez ditu kalkulatu bere mendeku sekretua azaleratuz gero jasan beharko dituenak, ez du melodrama batetarako indarririk; ziurrenik horregatik jarraitzen du koadrilan; zenbat "hitz egin behar dugu" pasa beharko lituzke harremanak moztuz gero? Baliteke Ixone Maribelekin topatu izana ere. Ez dute elkar ezagutzen. Edo bai, Ixone Maribelen semearen nobiaren laguna da. Urrunegi.

Jamon York-a hartzera makurtu da, "Ze, de inkognito zoaz?"; berez esaldia Josurena da, horregatik erabiltzen du Ixonek. Josu "antolatzaile" horietako bat da, nahiko dibertigarria hala ere, politika kontuetara mugatzen du "antolatzaile"-tasuna, lagunartean sukaldari lanak egiten ditu; eremu guztietan "antolatzailea" Itziar da; Ixone bien aholkulari eta miatzailea. "Ixone, Iratxe, Itziar eta Iñigo datoz bazkaritara, animatzen bazara"; inoiz ez ditu hainbeste gonbidapen izan hain epe laburrean. Iratxe Ixone eta Iñigoren pisukidea da, hor dagoela ohartzen ez garen horietakoa; gela batetik azkena irtengo balitz, argia itzaliko genioke barruan dela; horregatik ez da inondik azkena ateratzen. Elkarrizketa laburra izan da, Ainarak behingoagatik izozkailuzko pasillo honi sortzen duen hotz jasangaitza justifikatuko lukeen erabilera bat ikusi dio; ezin dira bertan elkarrizketa luzeak izan, zer hartu pentsatuta sartu behar da eta produktua bilatzeari lehenbailehen ekin. Ainarak eutsi dio pulsuari, ez da izotzeko pasillotik mugitu Josuk alde egin behar izan duen arte.

Harategitik irteten amarena baizik izan ezin duen zamarra horia ikusi du portaletik Ainarak. Iñigo, Itziar, Iratxe eta Ixonerekin dator hizketan; arrandegitik pausu txikitana baina ia lasterka irten da Maribi eskuak poltsaz gainezka, batetatik perrexila ia erorian, lehoia balitz lerdea dariola legoke kotilleoaren iturrietara jo ahal izatearekin aztoratuta. Amak gazteenak agurtu eta Maribiri kasu egiteko gelditu da. Ainarak atea itxi du bere atzean.

"Luisitok bere etxean ikusi zaitu, bueno, eskilaretan, Itziarren mutila agurtzen". Luisito. Luisito. Ainarak ez daki Luisito zein den. "Aita, gelara noa". Baina ez da itzultzen, aitari begira jarraitzen du, zerbait gehiago jakin nahi balu bezala. "Zeri egiten diozu irribarre?" Luisito! Ixoneren osaba. Ni más, ni menos. Egun bat ere ez da pasako enteratzen denerako. "Ainarak, utzi barre egiteari; hainbeste aspertzen zara horrelako gauzak egin behar izateko?" Ez daki aitak zenbat. Gelara sartzen den bitartean pentsatu du ezer gertatu gabe hainbeste denbora eta gero, beharbada melodrama bat ez legokeela gaizki. Gero Iñigo Itziarrekin itzuliko da, edo bakoitza antzekoren batekin, baina denbora batez "antolatzaileak" aztoraturik ikusteko plazera biziko du. Eta kitto. Berriro hastera. Bestela nola? Ama sartu da etxean. "Kendu eguzkitako betaurrekoak nirekin hitz egiteko". Eta esaldi horrekin, hasi da pelikula... ■